

# Iratxo Dortoka

Mirari Martiarena  
Iraola

**P**lastikozko akuario txiki batean bizi ziren bi dortoka izan nituen umetan. Erdian iriatxo bat zuen, palmeratxo eta aterpe txiki batekin. Gogoratzen dut behin bietako bat hozkailu azpian sartu zela eta amak komeriak izan zituela bertatik ateratzeko. Ez dakit noiz arte egon ziren gure etxean, badakit ez zutela askorik iraun.

“Dragoi bola” marrazki bizidunak iritsi ziren gero nire bizitzara eta txundituta egoten nintzen beraiei begira. Son Goku eta bere lagunak abenturekin

iluntzero izaten genuen zita eta bertan Iratxo Dortoka azaldu zain egoten nintzen. Bere irlako etxe txiki eta dotorean, dortoka erraldoia lagun zuela.

Urteak pasata dortokak maite dituen lagun bat ekarri zidan bizitzak, nire Iratxo Dortoka propioa. Berarekin ikasi dut lurrian mantso ibili arren pauso seguruak ematen dituztela, lurrarekin lotzea garrantzitsua delako. Dortokak uretan arinak direla, emozioak sentitzen dituztelako, emozioetan dantzan ibiltzen direlako. Edo egin behar duten

bidea egiten ez badute goitibehera batean jarri eta bi hankak puskatzen dituztela. Eta bidean asmatuz gero «bingooo!» oihukatzen dutela.

Dortokek hondarretan jartzen dituzte arrautzak eta kumeak pixkanaka jotzen dira berriz ere uretara bueltan. Halaxe sentitzen naiz momentu honetan, hondar azpitik atera den dortoka-kumea uretara bidean. Iratxo Dortokak irakatsitakoak eta erakutsitakoak bizkarrean hartuta. Esker onez beteriko eskolarekin eta bihotzarekin, emozioekin dantzan egiteko desiratzen. •

# Zatoz eta konta ezazu

Koldo Sagasti

**A**urtengo udaldian opor bidaiak pentsatzen ari den askok ikusiko zuen telebistan, segur aski, Israelgo turismoa sustatzen duen publizitatea: “*Tel Aviv-Jerusalem. Two cities, one break*”.

Iragarkiak tentuz neurtutako mezua igortzen du. Modernitatea, hondartzak, gastronomia, festa eta hondartza gehiago... ortzadarraren koloreez apaindutako lelo batez hornituta. Turismoa Mediterraneoko herrialdearen diru sarrera garrantzitsua bilakatzea izango du helburu kanpainak, noski, baina ez hori bakarrik; turismoa kanporako leihoa ere bada; herrialdearen irudi abegikorra, aurrerakoa eta mo-

dernoa emateko plataforma. Israelek, beste baliabide asko bezala, turismoa ere erabiltzen du *apartheid* erregimenaren gehiegikerien gaineko arreta desbideratzeko eta estatu sionistaren itxura jatorragoa emateko. Horregatik, hain zuzen, balizko kontsumitzaile festazale, hedonista, gazte, eta baita LGTB kolektibokoa ere erakartzeko ahalegina. Eta bide batez, lelo berean, bi hiri bisitatzeko gonbita: Tel Aviv eta Jerusalem. Bata nazioarteko legediak onartzen duen Israelgo Estatuko hiriburua ofiziala; bestea, aldiz, Palestinako hiriburua historikoa, mugimendu sionistak beretzat aldarrikatu eta 1967an okupatu zuena, Donald Trumpen erregime-

nak alde bakarrez eta nazioarteko erakundeek ebazpenak urratuz Israelgo hiriburutzat onartu berri duena. Dena ondo kalkulatu, erregimenaren irudia zuritzen duen mezua saltzeko.

Inportantea da Palestina bisitatzeko, hango egoeraren lekuko zuzena izatea, areago hedabide ofizialak sionismoaren kontakizun ofizial horren bozgorailu bihurtu direnean. Horrelaxe eskatzen digute behin eta berriz palestinarrak: zatozte eta konta ezazue. Baina bidaide egokiak bilatu, urteroko brigadak antolatzen dituzten talde internazionalisten zein Palestinako bertako bidaia agentzien eskutik bidaiatu, eta *break* horren bueltan, kontatu. •